

Lan hitzarmen berriaren negoziazioan aurrerapausu nahikorik ez

Insuficiente avance en la negociación del nuevo convenio



Lan hitzarmenaren negoziazioan LABetik egin ditugun ekarpenetako batzuk jaso direlako aurrerapausuak daude, baina, oraindik ez nahikoak lan hitzarmen berria lortzeko.

Atzo, hitzarmenaren zirriborroa bidali ziguten, soldatak, kategoriak, ordezkoen araudia eta ratioen eraskinekin, eta gaur mahai negoziatzailea izan dugu, gai bakarra lan hitzarmenaren negoziazioa izan delarik.

Urtarrila eta otsailean egin ditugun greben ondorioz aurrerapausuak badaude ere, LABetik aste hauetan bidali ditugun ekarpen batzuk jaso direlako, berebiziko eta hitzarmena adosteko ezinbestekoak diren aldagaiak falta direla mahaigaineratu dugu.

Besteak beste, LABetik eskatu ditugunak eta proposamenean jaso direnen artean: soldata administrazio orokorreko langileekin ekiparitzea proposatzen dute, urteko jarduna sukaldean 108 eta garbiketarako 120 ordu jeitea, sukaldeburua eta garbiketaburuen kategoriak sortzea eta euskalduntzea, kategorien profesionaltasuna lortzea, titulazioa edo hau balioztatzeko 3 urteko zerbitzuak gaitasun profesionalaren bidez parekatzea, ordezkoen araudia lan hitzarmenean txertatzea, lizentzia eta baimenetan hobekuntzak, 60 urtetik gorako langileen murrizketa erraztea,...

Atzo bertan bidali genituen ekarpenetan hainbat aldagaien zehaztasun falta direla, besteak beste funtzioen eta eginkizunen eranskina hitzarmenean zehaztea, ratioetan hobekuntza gehiago txertatzea, urteko orduetan formakuntza sartzea, Ordainsariatetan laneko arroparen osagarria igotzea, norbera babesteko ekipamendua erosteko adina, proposatu dugun ordezkoen araudi berria adostea, ordezkapenak ez direnerako betetzen protokoloa adostea...

Gauzak horrela, eta hurrengo zirriborroaren zain, borroka merezi duenean berresten gara eta martxoak 25, 26 eta 27 eta apirilaren 1 eta 2an grebara goaz.

Aunque en la nueva propuesta del convenio laboral se han recogido algunas de las aportaciones que hemos hecho desde LAB hay avances, pero, todavía no son suficientes para lograr el nuevo convenio laboral.

Ayer nos enviaron el borrador del convenio con los anexos de salarios, categorías, normativa del personal sustituto y ratios, y hoy hemos tenido mesa negociadora, el único tema tratado ha sido la negociación del convenio laboral.

Aunque hay avances como consecuencia de las huelgas que hemos hecho en los meses de enero y febrero, y han recogido las aportaciones que hemos enviado estas semanas desde LAB, hemos puesto sobre la mesa que faltan variables de vital importancia e imprescindibles para consensuar el convenio.

Entre otras cosas, las aportaciones que hemos solicitado desde LAB y que han enviado en la propuesta: proponen equiparar el salario con el del personal de administración general, bajar la jornada anual en cocina 108 y en limpieza 120 horas, crear las categorías de jefe o jefa de cocina y jefe o jefa de limpieza, la profesionalización y euskaldunización de las categorías, equiparar las titulaciones a los servicios prestados durante 3 años para equipararlos a través de las competencias profesionales, incorporar la normativa de sustituciones en el convenio laboral, mejoras en las licencias y permisos, facilitar la reducción del personal mayor de 60 años,...

En las aportaciones que enviamos ayer mismo detallamos que faltan concreciones, adjuntar el anexo de las funciones y tareas en el convenio, incorporar más mejoras en los ratios, incluir los días de formación en las horas anuales, aumentar el complemento de la ropa para adquirir EPIS, acordar la nueva normativa de sustituciones que hemos propuesto, acordar el protocolo por falta personal sustituto,...

Así las cosas, y a la espera del siguiente borrador, nos reafirmamos en que la lucha lo merece y vamos a la huelga los días 25, 26 y 27 de marzo y 1 y 2 de abril.